



**Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko martxoaren 21eko EBAZPENA, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko eta Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe publikoetan Zereginen Ikaskuntzako Geletan hutsik dauden Maisu/Maistren Kidegoko behin-behineko lanpostuak zehazten dituen 2022ko otsailaren 14ko zuzendari beraren ebazpena aldatzen duena.**

---

Hezkuntza sailburuaren 2021eko azaroaren 5eko aginduak (2021eko azaroaren 12ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioen artean autonomia-erkidegoko lekualdatze-lehiaketa deitu zuenak, bigarren oinarrian xedatutakoa betez, argitara ematen dira lehiaketa horretan eskainitako behin-behineko lanpostu hutsak.

Ondorioz, hau

**Lehen artikulua.-** Hezkuntza sailburuaren 2021eko azaroaren 5eko aginduaren (2021eko azaroaren 12ko EHAA) bidez autonomia mailako lekualdatze-lehiaketa deitu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-kidegoetako funtzionario irakasleen artean.

**Bigarren artikulua.-** 2022ko urtarrilaren 31ean eman zen Hezkuntza Sailaren web orrian argitara aipatutako ikastetxeetan lanpostu hutsen proposamena, lanpostu hutsen hasierako proposamenari egindako alegazioak aztertu eta planifikaziorako lurralde batzordeei entzun ondoren.

**Hirugarren artikulua.-** Aurreko artikuluan aipatutako lanpostu hutsen proposamenaren arabera, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko otsailaren 14ko ebazpenaren bidez zehazten dira Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko eta Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe publikoetako Zereginen Ikaskuntzako Geletan hutsik dauden Maisu/Maistren Kidegoko behin-behineko lanpostuak.

**Laugarren artikulua.-** 2022ko martxoaren 16an aldaketa bat gertatu da lanpostu hutsen proposamen horretan; hots, Helduen Hezkuntza. Hasierako Irakaskuntza espezialitateko lanpostu bat, D eredukoa, kendu da Irungo EPA Bidasoaldea HHian.

**Bosgarren artikulua.-** Lanpostu hutsen proposamenaren aldaketa dela-eta, aldaketa hori Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko otsailaren 14ko ebazpena, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko eta Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe publikoetan Zereginen Ikaskuntzako Geletan Maisu/Maistren Kidegoan hutsik dauden behin-behineko lanpostuak zehazten dituen eraman behar da.



Horregatik guztiarengatik,

**EBAZTEN DUT:**

**Lehen artikulua.-** Ondorengo terminoetan aldatzea Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko otsailaren 14ko Ebazpenaren bidez argitara emandako behin-behineko lanpostu hutsen eranskina:

- EPN 75 zutabearen 13. orritik hau erretiratzea: D hizkuntz eskakizuneko lanpostu bat Irungo EPA Bidasoaldea HHian.

**Bigarren artikulua.-** Interesatuek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute ebazpen honen kontra, 5 laneguneko epean, Hezkuntza Sailaren web orrian argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko martxoaren 21a

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO**  
**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**